

2.SEGMENTAZIOA



Gure produktua erakargarria da edonorentzat; izan ere, edonori gustatuko litzaioke giltzak erraz aurkitzea galtzen dituenean.

Gainera, bere prezioa nahiko eskuragarria izango da, 6,99 EUkoa bakarrik. Hala ere, prezio hori aldatu dezake giltzaren arabera, eredu konplexuagoa bada, prezioa igo egin daiteke, baina ez kezkatu! Super prezioa izaten jarraitzen du!

Produktu hau publiko guztiarentzat zuzenduta dago, baina desgaitasuna duten pertsonen arreta erakartzeko (hala nola itsuak eta gorrak), funtzio berezi bat diseinatu dugu.




Itsuentzat, giltzek soinu bat igorriko dute horiek aurkitu ahal izateko, eta gorrei dagokienez, haien kokapena erakusten duen mapari esker, giltzak aurkitzeko gai izango dira.

Bi funtzio horiek bereziki erakargarriak izan daitezke haientzat, baina horrelako desgaitasunik ez duen edozein pertsonarentzat oso erabilgarria izan daiteke; izan ere, denoi gertatu zaigu inoiz giltzak aurkitu ez izana.

Alde batetik, 14 urtetik gorako pertsonengana joko dugu eta beste alde batetik, kokapenari dagokionez, gure enpresa Bilbotik sortuko da, eta ezarriko dugu denda fisiko bat.

Helburua?

Espanditzea! Gure helburua Espainian hainbat denda esartzea da.



Bestalde, gazteen arreta erakartzeko, lehen erosketan giltzari bat oparitzea erabaki dugu.

Mugikorrean instalatzen badute, zozketa batean sartuko dira. Zozketa hori, urtean behin egingo da eta oparia urtero desberdina izango da.